
Joxemai Ormazabal Sukia
Lazkaoko alkategaia
Candidato a la alcaldía de Lazkao
ehbildu
Maite duzun Lazkao
EGINGO DUGU.

# Herria eraldatuko dugu lazkaotarrentzat, lazkaotarrekin



# EGINGO DUGU.



Politika eredu tradizionalean uneko agintariak pentsatu izan du badakiela herritarren beharrak zein diren, eta hitz eman du haiengan pentsatutako politika egingo duela.
Gure promesa haratago doa:  herritarrekin pentsatutako politika egitera gatoz.
Adibidez, urteko aurrekontuak lantzeko, eztabaida-talde zabalak deituko ditugu, eta horietan erabakitzen dena beteko dugula hitz ematen dugu.
Aurrekontuetan bezala jokatu nahi dugu gainerako alorretan ere: herritarrei hitza emanez. Horretarako, entzuketa taldeak eratuko ditugu, lazkaotarren egunerokoan eragina izango duten erabakiak gidatzeko. Nahi duenak parte hartu ahal izango du saio hauetan, eta guztion ideiak ongi etorriak izango dira. Gure auzoetan zer behar dauden, nola hobetu ditzakegun, nola lor dezakegun hobeto bizi izatea, izango da erabakigai parte hartze-prozesuetan.
Udal batzordeak ere izan daitezke parte hartzea bermatzeko foro egokiak. Egungo udal-batzordeen artean berariazko batzorde baten beharra sumatzen dugu: adinekoena. Lazkaoko biztanlerian 65 urtetik gorakoek ez dute beste herri batzuetan adinako pisurik (% 18 dira, eta Gipuzkoan % 23), baina proposatzen dugun elkar-zaintza ereduan gainerako adin-tarte guztientzat eredugarri izan daitezkeela uste dugu: gertutik ezagutzen dute kolektiboa, badakite auzolanean arazoei aurre egiten…

## Transformaremos el pueblo para y con los y las lazkaotarras

En el modelo político tradicional, la autoridad de turno se autodenomina conocedora de las necesidades ciudadanas, y promete realizar políticas pensadas en ellas.
Nuestra promesa va más allá: venimos a realizar una política pensada CON los y las lazkaotarras.
Por ejemplo, organizaremos amplios grupos de discusión al trabajar los presupuestos anuales, y prometemos cumplir lo que en ellos se decida.
Queremos actuar como en el tema de presupuestos en el resto de los ámbitos: dando la palabra a la ciudadanía. Organizaremos grupos de escucha, para guiar las decisiones que condicionan nuestro dia a dia. Podrá participar el ellos quien lo desee, y serán bienvenidas todas las ideas. Qué necesidades hay en nuestros barrios, cómo los podemos mejorar, cómo podemos lograr vivir mejor… serán los temas para decidir.
Las comisiones municipales también pueden ser unos foros adecuados. En la actual distribución de comisiones, echamos de menos una: la de los mayores. Los lazkaotarras mayores de 65 años no constituyen porcentualmente una cifra tan importante como en otras localidades (son el 18 % y en Gipuzkoa el 23 %), pero en el modelo de cuidarnos mutuamente que proponemos son un ejemplo a seguir:  conocen desde dentro el colectivo, saben afrontar los problemas en comunidad…




# Gure taldea

# *Nuestro equipo*

@Ehbildulazkao EH Bildu Lazkao ehbildulazkao
ehbildulazkao@gmail.com lazkao@ehbildu.eus

Nola hartu parte: Herritarron bilerak antolatzen ari gara denon beharrak aztertu eta ideiak jasotzeko. Zatoz eta ekarri zure iradokizunak! Deitu edo bidali whatsap bat 644864866




1 Joxemai Ormazabal Sukia
2 Aitziber Azurmendi Imaz
3 Egoitz Bergara Azpirotz
4 Maialen Amundarain Irizar
5 Haritz Antoñanzas Urdangarin
6 Karol Agirre Mastrangelo
7 Josu Sarriegi Zumarraga
8 Idoia Azpirotz Peña
9 Gari Bravo Oyarbide
10 Ane Arizkorreta Aldasoro
11 Joxpi Insausti Jauregi
12 Gina Saru
13 Funtxi Caballero Auzmendi
14 Marije Insausti Onda
15 Noemi Rodriguez Fernandez
16 Ibon Zabala Arrillaga

Elkarrekin lan egiteko grinaz datorren lazkaotar taldea aurkezten dizugu. Zorrotz, garden, gozo, eraginkor, gogotsu, ulerkor, adiskidekeriarik gabe, adimentsu, irudimentsu... lan egingo dugula hitz ematen dizugu. Erronka zaharrei, zein etorkizunekoei, errezeta berriekin aurre egiteko garaia iritsi da!

Te presentamos a un equipo de lazkaotarras deseoso de trabajar juntos. Te prometemos que trabajaremos con rigor, transparencia, sin aspavientos, con eficacia, con ganas, de forma comprensiva, sin amiguismos, con inteligencia e imaginación. ¡Ha llegado el momento de afrontar los problemas actuales y del futuro con nuevas recetas!

# Gurutze-Hirigoien-Katilusoro eredu

LERRO HAUETAN AURKEZTEN DUGU GURE HERRI-EREDUAREN HARITIK LAZKAO NOLA HOBETU NAHI DUGUN. EGUZKI GALDATAN ITZALA, HOTZETAN SUTONDOA, EURITAN ATERPEA, GOZAMENA, TRISTURAN ALTZOA ESKAINIKO DIGUN HERRIA NAHI DUGU. BI HITZETAN: ELKAR ZAINTZEKOA. HAU EREDU OSO BAT DA, BAINA EREDU BAT BAKARRIK. IZAN ERE, NOLA GARATUKO DEN HERRITAR GUZTIOK ERABAKIKO DUGU.

## ELKARTU, MINTZATU, MUGITU, JOLASTU...: GOZATU!

Hori guztia egiteko aukera ematen du Lazkaoko eremu honek. Kirola eta aisia bultzatuko ditugu, lazkaotar helduenen beharrei arreta berezia jarrita.
Herriko hirigintza-eredua birpentsatzeko aukera ikusten dugu: natura eta berdeguneak berreskuratuz, ongizatearen ardatzetako bat direnez, beti ere, bidegorri, errepide, aparkaleku eta espaloiekin oreka egokian.
Bestalde, hainbeste familia bizi diren eremura udal zerbitzuak gerturatu nahi ditugu, "txanpinoi" ezizenez ezagutzen dugun Hirigoien 26ko eraikina egokituta.
Guztion gustura gara dezagun, beharrezko ikusten dugu parte hartze zabalaren bidez definitzea: herri-baratzeak, haur- zein kalistenia-parkeak, eserleku eta mahaiak itzalean eta eguzkitan...
Eta oraintxetik hasi nahi dugu lantzen, hauteskunde aurretik, Hirigoien kaleko bilgunean. Zatoz eta har ezazu parte egitasmoa osatzen!

## REÚNETE, COMUNÍCATE, MUÉVETE, JUEGA...: DISFRUTA!

La zona ofrece todas estas posibilidades. Fomentaremos el deporte y el ocio, prestando especial atención a los y las lazkaotarras de mayor edad.
Vemos la oportunidad de repensar el modelo urbanístico local: recuperando la naturaleza y las zonas verdes, buscando siempre un equilibrio con los necesarios bidegorris, carreteras, aparcamientos y aceras.
Por otra parte, queremos acercar los servicios municipales a una zona donde viven tantas familias, remodelando el edificio de la calle Hirigoien 26, conocido como "el Champiñón".
Debemos diseñar el proyecto con una amplia participación, a gusto de todas y todos: huertos comunales, parques infantiles y de calistenia, asientos y mesas a la sombra o al sol...
Y queremos empezar a desarrollarlo desde este momento, en el bilgune de la calle Hirigoien. ¡Ven y participa en su elaboración!




▲

Aisiarako eta kirolerako eskaintza zabala proposatzen dugu Gurutze-Hirigoien-Katilusoro eremuan.

## EGITASMO BAKARRA, HELBURU BIKOITZA

Eraldaketa honekin Katilusoro (Meandro) eremuari irtenbide bat eman nahi diogu, aisiarako eta kirolerako gune bihurtuz, herritar guztiok disfrutatzeko, eta, bide batez, egun zoladura artifiziala duen azaleraren bat naturalizatu nahi dugu, arbola eta lorategi gehiago landatuz.

## UN PROYECTO, DOS OBJETIVOS

Con esta remodelación queremos dar una solución a la zona verde de Katilusoro (Meandro), reconvirtiéndola en área de esparcimiento y deporte, para el disfrute de la ciudadanía y, en segundo lugar, pretendemos naturalizar algún espacio urbanizado actualmente con pavimento artificial, plantando más árboles y jardines.

*Arbola eta berdegune gehiagorekin egingo diogu aurre udako bero sapari. Orain udan "labe" jasanezin diren plaza batzuk berreskuratzen hasiko gara.*

# Sei proiektu gure bizitzak hobetzeko

## Seis proyectos para mejorar nuestra vida






### Udal zerbitzuak auzoetara gerturako ditugu

Gaur egun zerbitzu publiko gehienak plaza inguruan pilatzen dira, eta bertako instalazioek (udaletxea bera, kiroldegia...) askotan mugatu egiten dute zerbitzuak egoki planifikatzea.
Batez ere herritar helduenen irisgarritasunari begira, udalak auzoetan dituen lokalak (zine azpiko gelak, Hirigoieneko Perretxikoa, etab.) egokitu eta erabiliko ditugu auzotarren topagune izan daitezen: eskulan tailer zein kirol ikastaroak bertara zabalduz, aisia ekitaldiak antolatuz, komunitateen bilerak egiteko espazio bat eskainiz, edota asistentzia soziala bezalako zerbitzuak asteko egun batzuetan bertatik bertara emanez.

### Acercaremos los servicios municipales a los barrios

Actualmente la mayoría de los servicios se concentran entorno a la plaza, y las instalaciones existentes (la propia casa consistorial, polideportivo...) muchas veces limitan la adecuada planificación de servicios.
Adaptaremos los locales municipales (sótano de Areria, "Champiñon" de Hirigoien, etc.), atendiendo, sobre todo, a la accesibilidad de los mayores, para que sean lugar de encuentro de los vecinos: extendiendo las sesiones de deporte y manualidades a ellos, organizando eventos de ocio, ofreciendo un espacio para las reuniones de comunidades, u ofreciendo servicios como la asistencia social algunos días de la semana.



## Berdeguneak eta lorategiak berreskuratuko ditugu

Herrian ditugun berdegune bakarrak lorontziak izateak klima-aldaketaren erasoa are itogarriagoa izatea eragiten du. Hormigoizko basamortu bihurtzen dira gure plazak uda iristean.
Arbolak eta belardiak landatuko ditugu.



## Recuperaremos las zonas verdes y los jardines

Que las únicas zonas verdes del pueblo sean las jardineras conlleva que las olas de calor sean aún más asfixiantes. Nuestras plazas se convierten en desiertos de hormigón con la llegada del verano.
Plantaremos árboles y jardines.



## Helduenak norbere etxean hobeto zaintzeko neurriak

Denok bizi nahi dugu ahalik eta luzaroen norbere etxean, eta ohikoa da zaintzaile profesionalen beharra izatea.
Zaintzaile profesionalen kooperatiba bat bultzatuko dugu, lan-baldintza duinetan, formazio onena bermatuz, euskara barne.



## Tomaremos medidas para cuidar mejor a los mayores

Queremos vivir en nuestro propio domicilio, y es muy habitual necesitar la ayuda de cuidadoras profesionales.
Organizaremos una cooperativa de ellas, en condiciones laborales dignas, con la mejor formación, incluido el euskara.

# *Sei proiektu gure bizitzak hobetzeko*

## *Seis proyectos para mejorar nuestra vida*






### Etxebizitza duin eta jasangarrien aldeko politika egingo dugu

Lazkaon etxebizitza bat alokairuan hartzeko zailtasunak daude, eskaria eskaintza baino handiagoa baita. Aldi berean, badira hutsik dauden etxebizitzak. Erakundeetatik alokairua eta etxebizitzen efizientzia energetikoa hobetzeko laguntzak argitaratzen dira: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, mailegu kualifikatuak, zerga-arinketa... Askotan, horien guztien berri ez da iristen interesatuengana.
Gure lehentasuna eraikitako etxebizitza-parkeari ahalik eta erabilgarritasun handiena ematea izango da. Informazioa eta aholkularitza eskainiko diegu maizterrei nahiz etxe-jabeei.

### Abogaremos por una vivienda digna y sostenible

En Lazkao existen dificultades para adquirir una vivienda en alquiler, porque la demanda es superior a la oferta. Al mismo tiempo, hay viviendas que se encuentran vacías. Las instituciones lanzan ayudas para el alquiler y la eficiencia energética de las viviendas: créditos a fondo perdido, préstamos cualificados, desgravaciones fiscales... Muchas veces, esta información no llega a los interesados.
Nuestra prioridad consiste en optimizar la ocupación del parque existente. Nos comprometemos a informar y a asesorar tanto a los inquilinos e inquilinas como a los y las propietarias.




## Kultur eragileen eta boluntarioen lana erraztu

Sekula ez dugu behar bezala eskertuko kultur eragileek herriari zenbat ematen dioten. Eskerrik asko eta jarraitu horrela!
Guztiek duten lokal faltari irtenbidea aurkituko diogu, eta, bide batez, elkarlana estutu.



## Kirol eskaintza areagotu, lehiakoa eta lehiarik gabekoa

Kirola osasuna da.
Kirol-instalazio berriak ezarriko ditugu auzoetan: kalistenia- eta ur-parke bat. Instalaziorik gabeko kirola ere bultzatuko dugu: pasiera, korrika, zikloturismoa...



## Facilitar la labor de voluntarios y los agentes culturales

Nunca agradeceremos lo suficiente cuánto dan estos agentes al pueblo. Gracias, y ¡seguid haciéndolo!
Encontraremos una solución a la falta de locales que sufren todos ellos, y, de paso, mejoraremos la coordinación.



## Aumentar la oferta deportiva, competitiva y no competitiva

Deporte es salud.
Estableceremos nuevas instalaciones deportivas en los barrios: un parque de calistenia, uno acuático. Y fomentaremos el deporte sin instalaciones: paseo, correr, cicloturismo...



# Goierrin ere industria politika eraginkorra

## Una politica industrial eficiente en el Goierri

EKONOMIA ETENGABEKO TERTZIARIZAZIO PROZESUAN SARTUTA DAGOEN HONETAN, EZINBESTEKOA DA GOIERRIRI ONGIZATEA BERMATU DION INDUSTRIA (BER)INDARTZEA. HORRETARAKO, ENPRESA SAREA SENDOTZEN SEGI BEHAR DUGU, SEKTORE BERRITZAILEAK BULTZATUZ ETA TRAKZIO EFEKTUA DUTEN
ENPRESA HANDIEK ESKUALDEAN IRAUNGO DUTELA BERMATUZ

ESTANDO LA ECONOMÍA EN UN CONSTANTE PROCESO DE TERCIARIZACIÓN, ES IMPRESCINDIBLE REFORZAR LA INDUSTRIA QUE HA PROVISTO DE BIENESTAR AL GOIERRI.
PARA ELLO, DEBEMOS CONTINUAR FORTALECIENDO EL TEJIDO EMPRESARIAL, ATRAYENDO A SECTORES INNOVADORES Y ASEGURÁNDONOS DE QUE LAS GRANDES EMPRESAS TRACTORAS CONTINÚAN AQUÍ.

## *Gure industria-politikaren helburua da aberastasuna sortzea, egoki banatzeko*

Europak munduko ekonomian eragina berreskuratzeko abiatutako bidetik, Goierri poloak hezkuntza, formazioa eta ikerketa koordinatu eta gidatzen jarraitu behar du. Aldi berean, erakunde publikoen interbentzioa handitu behar da, industria-sektorea lehenetsi, gainerakoak ahaztu gabe, eta I+G+B ahalegina handitu.

Beraz, Goiekiren eta Goierri Valleyren bidez Goierrin politika industrial ekintzailea egin beharra dugu; beste herri erakundeekin, bultzatzaile rola har dezatela. Horrela lortuko baita aberastasuna sortzen iraunkorrak izatea, hura egoki banatzea, kalitateko enpleguari eustea, balio erantsi handiagoko ekoizpen-ehunean kokatzea eta industria eramatea ekonomia karbonogabetu eta zirkularrerantz.

Goiekik kluster egiturak ebaluatu eta hausnartu behar ditu, batik bat, haien efektibitatea, eragina eta efikazia; enpresen errotzea indartu behar du; Erkidegoko industria politiketan parte hartu behar du; eskualdeko enpresak kudeaketa aurreratura bideratu behar ditu, langileen parte hartzea bermatuz; berrikuntza politikak bultzatu behar ditu (teknologian ez ezik, marketinean, merkaturatzean, diseinuan, antolakuntzan...).

## El objetivo de nuestra política industrial es crear riqueza, para distriburla equitativamente

Siguiendo el camino emprendido por Europa para recuperar su influencia en la economía mundial, el polo Goierri debe continuar coordinando y dirigiendo la educación, la formación y la investigación. Así mismo, se debe aumentar la intervención de las instituciones públicas, priorizar el sector industrial, sin olvidar el resto de los sectores, y aumentar la inversión en I+D+I.

Por lo tanto, abogamos por una política industrial emprendedora en el Goierri, a través de Goieki y de Goierri Valley; que asuma roles impulsores en la industria; de manera que se asegure la sostenibilidad en la creación de riqueza, su reparto más equitativo, la generación y mantenimiento de empleo de calidad, el posicionamiento del tejido productivo en actividades de mayor valor añadido, y la transformación industrial hacia una economía descarbonizada y circular.

Goieki debe reflexionar y evaluar las políticas y estructuras clúster, sobre todo en relación con su efectividad, impacto y eficiencia; debe fortalecer el arraigo de las empresas; debe participar en las políticas industriales de la Comunidad; orientar a las empresas locales hacia la gestión avanzada, garantizando la participación de los y las trabajadoras; debe impulsar las políticas de innovación (tanto en tecnología como en marketing, comercialización, diseño, organización...).



## Energia Erkidegoen Sustatzailea

Eusko Jaurlaritzari dagokio EAE mailako erabakiak hartzea, hala nola, E(B)EE birmoldatzea, Energiaren Euskal Erakundean Berriztagarrien B txertatzea nahiz merkaturatzaile publikoa sortzea. Eskualde mailara etorrita, aitzindaritza Goiekiri dagokio.
Eskualde mailan saretutako energia komunitateak sortzeak du lehentasuna. Horretarako, Goiekik pertsona bat kontratatzea proposatzen dugu. Herri bakoitzean komunitate bat antolatzea bultzatuko du, eraginkortasuna bilatuz: plaka fotovoltaikoak instalatu, mugikortasunean hobekuntzak egin, kontsumoa murriztu...

## Promotor o promotora de Comunidades Energéticas

Corresponde al Gobierno Vasco adoptar medidas a nivel autonómico, tales como remodelar EVE(R), insertando la R de renovables en el Ente Vasco de Energía, crear una comercializadora pública. A nivel comarcal corresponde a Goieki el liderazgo.
A este nivel, la prioridad consiste en crear comunidades energéticas coordinadas a nivel comarcal. Proponemos que Goieki contrate a una persona. Su cometido sería fomentar la formación de una comunidad en cada municipio, buscando la efectividad: instalar placas FV, promover mejoras en movilidad, reducir el consumo...




## Goierriago izango gara

Garrantzitsua deritzogu herrien arteko berdintasunari: nork bere nortasunari eutsi, baina herritarrei aukera berdinak eskaini ahal izateari. Lortuko badugu, baliabideak partekatu behar ditugu.
Baditugu partekatzen ditugun zerbitzuak eskualdean, eta horietan sakontzen jarraituko dugu: osasunean, kirolean, hondakinen kudeaketan, ur-zerbitzuetan, mugikortasunean, azoketan... Horien esperientzia aberasgarriak oinarri, beste hainbat alorri helduko diegu legealdi honetan: emakumeen etxea, zaintza-kooperatiba(k), biziklet(a elektriko)en alokairua, kultur programazioa koordinatu...

## Seremos más Goierri

Consideramos muy importante la igualdad entre los pueblos: que cada cual mantenga su propia personalidad, pero que todos puedan ofrecer las mismas oportunidades a sus vecinos y vecinas. La forma de conseguirlo es compartir los recursos. Hay servicios que ya compartimos, y seguiremos mejorándolos: salud, deporte, gestión de residuos, servicio de agua, movilidad, ferias... Basándonos en estas experiencias enriquecedoras, abordaremos nuevos temas esta legislatura: casa de mujeres, cooperativa(s) de cuidados, alquiler bicicletas (eléctricas), coordinación de la programación cultural...

# Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen Iriarte Okiñena**

Gipuzkoako Ahaldun Nagusirako hautagaia

Candidata a Diputada General de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas las posiblidades que tiene Gipuzkoa, para que nadie se quede atrás.*

*Mejorar para avanzar*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena.  Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

ehbildu

@MaddalenIriarte
Maddalen Iriarte Okiñena
maddaleniriarteokinena
ehbildu.eus